

Pierre Laffite Jaunari
"Herria"
14 Rue des Cordeliers
BAYONNE.

Agur Jauna:

Laguntasunan billa nabil, bearrezkoa dot eskuartean daroatan lana betetako ta; orregaitik zuga na nator gizon jakitun zarela ta. Parkatu egiztazu ne re bekoki aundia: "audaces fortuna iuvat...". Nere us tez, euskal jakintza bere bigarren pizkundean dabil, eta bakoitzak bere arloan lan egin bearra dauko: nere betebearra musika arloan dagoala usten dot eta orregaitik arlo onetako gizon jakitunak bear dotaz lagun.

Euskal Musikaren Kondaira idatzi bearrean nago. Gizon batek ditakena baiño lan andiagoa dala argi dago, baiña ez gara makurtu bear orregaitik. Egiñak egiñ; atzetik datozenak bide garbiagoa billatuko dabe aurrera joteko. Programa ori betetako badaukataz aintzat barri eta ixtudio emendiko alderdikoak, au da, Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Naparrakoak. Emengo Euskalerriko alderdian badaukataz artu-emonak lan on bat bukatzeko beste. Baiña orko alderdian, Lapurdi, Benabarre eta Zuberoan, ez daukat nundik barri onek atara.

Egia esateko, badaukataz oarpen batzuk "Gure Herria"tik artunikoak. Baiña, nere ustez, gitxi dira, kontuan euki ezkerro Zuberoa dala Euskalerriko Musikaren biotza. Makiña bat musiku izango dira orretan iru probintzietan, oingoak eta lengoak, eresgilleak, instrumentistak, eres-talde zuzendariak, baita orfeoiak eta abar, Kondaira orretan leku garaia merezi dabenak. Eta orren izenak eta biografiak (eta bear bada bibliografiak, be) errez gogoratuko dozuz lagunta

sun au niri emoteko. Badakit olako lanari eutsiteko ez
dozula asti askorik izango; baiña zuk ezin badozu, be,
or "Herria"-n, eta zure lagun eta ikasle artean, izango
da no-nor prest laguntasun au emoteko.

Erantzuna bardin emon zeinke euskeraz edo pran
tzezera; baiña, mezedez, erantzun egitzazu nik jakiteko
nundik jo bear dotan orko musikaren barriak batuteko.

Barrero noa parkamena eskatzen eta oindik es-
kerrak ugari ioatzuz. Lagunki,

